

IL AZALPEN PROBA • *Amodioaren gazi-gozoak*

---

Kodea\* ..... Taldea .....

\*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko

<b>E</b> dukia		/ 2,5
<b>M</b> oldea		/ 2,5
<b>Z</b> uzentas.		/ 5
<b>GUZTIRA</b>		/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300** bat hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

Ez zegoen giro atseginik hizketarako sukaldean eta, orduan, Julianek gauzak pixka bat ulertzen lagundu didan gauza bat egin du: eskua bere beroki lodiko poltsiko batean sartu eta, ene Jainkoa!, paperezko diru mordoa atera du! Eskukada handia. Eta mahai gainean utzi du. Poltsiko beretik paper bat atera du jarraian eta aitari esan dio.

—Sina ezak.

Aitak arkatx bat atera du nonbaitetik eta poliki idatzi du bere izena, hura zer zen ongi jakingo balu bezala. Eta gero ezer ez. Dirua mahai gainean geratu da eta Julianek besotik heldu dit "Goazeman!" zakar samar esateaz batera. Ama orduan nire aurrean belaunikatu da eta musuka hasi zait. Aitak zer edo zer esan dio...

IL AZALPEN PROBA • <i>Amodioaren gazi-gozoek</i>	
Kodea* .....	Taldea .....
*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko	

Edukia	/ 2,5
Moldea	/ 2,5
Zuzentas.	/ 5
GUZTIRA	/ 10

- > Hasteko, **kokatu** pasarte hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
  - > Ondoren, **zehaztu** pasartea (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obraz ezer ez dakien irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
  2. Helburua **–zure IL lanean bezala–**: obraren edukia eta ezaugarriak azaltzea, eta **iritzia** ere ematea.
  3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
  4. Neurria: **300** bat hitz; txukun (zirriborrorik gabe, letrakera argia...) eta margenak utzita.
  5. Amaitutakoan, kontatu hitzak (idatzi /50 /100 /150... markak) eta hemen azken kopurua: .....

Eta beti, eguneroko osoan zehar, haize gorriari buruzko aipamenak han-hemenka. Zorioneko haize gorria, Mirenek hain maite zuena. Dena dela, Mirenek lehen Zelaitxon sentitutako sentimenduei buruz idatziz orriak eta orriak betetzen zituen bezala, orain –noski– bere semetxoak egindako gauzez idatziz betetzen zituen. Egiaz esan daiteke bene-benetan, hamar urte inguru haiek lasaiak eta zorionekoak izan zirela Miren eta bere familiarentzat, baita Alairentzat ere, jakina.

Baina ekaitzaren ondoren beti barealdia datorren bezala, berdin esan genezake alderantziz: barealdiaren ondoren –lehentxoago edo geroxeago– ekaitza dator beti. 1942ko azaroaren 8a. Egun horixe zinez zorigaiztokoa izan zen gure bikotearentzat, Antonioarentzat bereziki, baina biengan izan zuen eragin handia. Mirenek berak aipatu zuen egun hartan idatzirikoan, eskua dardarka zeukalarik ari zela idazten. Egia esan, aipatu ez balu ere, antzemango niokeen, zeren eta, asaldatuta bailegoen, Mirenek oso letra dardaratiz idatzi baitzuen.